

Miren nunca mais!
Pako Aristi
Ilustratzailea: Eider Eibar
Elkar, Donostia, 2007

Egun galiziar bat

Pako Aristik eskarmentu handia du haurrentzako istoriorik xumeenari ere gatz eta piperra ateratzen, eta horixe egin du oraingo *Miren nunca mais!* honetan. Funtsean, askotan galtzen den neska baten istorioa da. Halako batean, bidaia bat egitera abiatu da, gurasoekin batera, Santiagora. Bidean pare bat aldiz galdu eta gero, Santiagon gertatuko zaio galdualdirik luzeen eta garrantzitsuena, istorioari dagokionean behintzat. Bada, anekdota hori ederki ustiatu du Aristik liburu entretenigarri bat osatzeko.

Miren protagonistak hamar urte ditu eta, galtzen denetan, bere kabuz ibiltzeko gai dela erakusten du istorioan zehar. Ez beharbada ongi hezitako neskatxa bati eskatuko litzaiokeen neurrian, baina tira. Eta hortxe dago, hain zuzen, liburuko gatzaren gakoa: galduta dabilen bitartean biziraun ahal izateko, Miren ez da politikoki zuzena, ezta gutxiagorik ere. Batean makila batez jotzen du treneko gizon biboteduna, beste batean bokata osten dio txangoan doan mutiko bati, beste batean irakasle bat jotzen du, beste batean udaltzain bibotedunari (bibotea izatea maltzurkeriaren marka, nonbait) ostikoak eta gaztainak botatzen dizkio... baina kontzientzia txarrik ez. Hori guztia, gainontzeko gertakizunekin batera, umorez zipristindua: horra istorioko piperra.

Orain arte azaldutako efektu erakargarria lortzeko, “hartzaile bakarraren” eredu jarri du jokoan Pako Aristik: helduak alde batera utziz edo bigarren planora eramanez, itxuraz autonomia den ume bat aurkeztu digu, halako ume batek helduen kontrolpetik kanpo dagoenean egingo lukeen guztia eginez. Formula guztiz arrakastatsua da ume irakurleak erakartzeko; bitartekarien oniritzia eskuratzeko, berriz, ez hainbeste. Haur literaturaren historian eredu horren adibide paradigmaticoak bilatzen hasita, “Pippi Kaltzaluze” izango litzateke lehenengoa: gurasorik gabe eta adiskideekin batera, bere kabuz (ondo samar) bizi den neskatoa; burura datorren bigarren adibidea, berriz, “Bostak” saileko neska-mutilak dira: oporretan gurasoengandik urrun zeudela aprobetxatuz, bizimodu itxuraz autonomia egin eta era guztietako misterioak argitzen jarduten zuen taldea.

Miren galduta dabilen bitarteko narrazioari aplikatu dakioke arestikoa; izan ere, gurasoek aurkitu egiten dute azkenean, eta orduan azalpenak eta amaiera zoriontsua bestelako tonuan baitatoz.

Miren nunca mais! liburuari buruz esandakoaz gain, Galiziako Santiagon ibiltzeko gidaliburu ona dela ere esan daiteke, baita oinarrizko galegoa ikasteko ere (bitxia: liburuaren hasieran Miren ez da gai azkar hitz egindako gaztelania ulertzeko, eta bai, ordea, bere ibilbidean zehar entzundako galego guztiaz jabetzeko). Eta, hori ez ezik, neska narratzailearen burutik ateratako gogoeta gozagarri batzuk ere aurki daitezke, hala nola: “Zertarako paseatzen ote dute agureek geltokietan? Ziur aski gaztetan etxetik alde egin nahi izan zutelako, baina trenera igotzen ausartu ez zirelako” (40. or.). Eta neskatoa koman egon zen batean bizi izandako esperientzia mistikoaren berri ematen duen pasartea ere aipatzekoa da.

Amaitzeko, akats txikien atala “aurkitu desberdintasunak” modura kontatuko dut: zein da testuko udaltzainaren eta marrazkiko udaltzainaren arteko desberdintasuna?, eta zein da benetako Pako Aristiren eta liburuko Pako Aristiren arteko adin aldea?

M.L.G.